

BIGARREN ETA HIRUGARREN AGERTOKIEN ANTOLAKETA

- 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**
- 2. BIGARREN ETA HIRUGARREN AGERTOKIAK**
 - 2.1. BIGARREN AGERTOKIA- IKASLE BAT ETXEAN**
 - 2.1.1. Zer da ?
 - 2.1.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?
 - 2.2. BIGARREN AGERTOKIA- GELA OSOA ETXEAN**
 - 2.2.1. Zer da?
 - 2.2.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?
 - 2.3. HIRUGARREN AGERTOKIA- IKASTOLA OSOA ETXEAN**
 - 2.3.1. Zer da?
 - 2.3.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?
- 3. HAUR HEZKUNTZA**
 - 3.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia**
 - 3.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 3.1.2. 2.agertokia (taldea)
 - 3.1.3. 3.agertokia (ikastola osoa)
 - 3.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz.**

Ordutegiak

 - 3.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 3.2.2. 2. agertokia (taldea)
 - 3.2.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
 - 3.3. Metodologia (+ zalantzak argitzeko aukerak):**
 - 3.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 3.3.2. 2. agertokia (taldea)
 - 3.3.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
 - 3.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak (sustapena ez)**
 - 3.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 3.4.2. 2. agertokia (taldea)
 - 3.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
 - 3.5. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)**

- 3.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)
- 3.5.2. 2.agertokia (taldea)
- 3.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

4. LEHEN HEZKUNTZA

- 4.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia
 - 4.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 4.1.2. 2.agertokia (taldea)
 - 4.1.3. 3.agertokia (ikastola osoa)
- 4.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz.
Ordutegiak.
 - 4.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 4.2.2. 2. agertokia (taldea)
 - 4.2.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 4.3. Metodologia (+ zalantzak argitzeko aukerak):
 - 4.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 4.3.2. 2. agertokia (taldea)
 - 4.3.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 4.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak (sustapena ez)
 - 4.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 4.4.2. 2. agertokia (taldea)
 - 4.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 4.5. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)
 - 4.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 4.5.2. 2.agertokia (taldea)
 - 4.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

5. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- 5.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia
 - 5.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 5.1.2. 2.agertokia (taldea)
 - 5.1.3. 3.agertokia (ikastola osoa)
- 5.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz

- 5.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)
- 5.2.2. 2. agertokia (taldea)
- 5.2.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 5.3. Metodologia (+ zalantzak argitzeko aukerak):
 - 5.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 5.3.2. 2. agertokia (taldea)
 - 5.3.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 5.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak (sustapena ez)
 - 5.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 5.4.2. 2. agertokia (taldea)
 - 5.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 5.5. Ikasleen ordutegia
 - 5.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 5.5.2. 2. agertokia (taldea)
 - 5.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)
- 5.6. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)
 - 5.6.1. 2. agertokia (ikasle bat)
 - 5.6.2. 2. agertokia (taldea)
 - 5.6.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

2020-2021 ikasturtea berezia izaten ari da eta ikastola prestatzen ari gara ikasturte honetan etor daitezkeen egoera berrien aurrean erantzun egokiena eman ahal izateko. Ezin dugu jakin zehazki nolako egoeraren aurrean jarriko gaituen pandemia honek, baina oraingoz 3 agertoki aurrikusi ditu Hezkuntza Sailak eta agertoki horietan nola jokatu dugun azaldu nahi dizuegu, etapaz etapa.

Lehenengo agertokia ikasturte hasieratik daukaguna da, hau da, ia normaltasun osoa duen agertokia.

Bigarren agertokia agertoki semipresentziala da, saio presentzialak eta telematikoa uztartuz.

Jardun mistoa ulertzeko modu desberdin asko eta antolaketa oso desberdinak egon daitezke eta ezin ditugu denak aurrikusi. Prestatu dugun dokumentu honetan arruntenak bilakatzen ari direnak agertzen dira baina etorkizunean hemen ez dagoen beste antolaketa bat egin behar izatea gerta liteke.

Hirugarren agertokian irakaskuntza guztia telematikoa da.

2. BIGARREN ETA HIRUGARREN AGERTOKIAK

2.1. BIGARREN AGERTOKIA- IKASLE BAT ETXEAN

2.1.1. Zer da ?

Etxean ikasle bakan batzu daude, bai PCRaren emaitzaren zain daudelako, bai 10 eguneko itxialdian daudelako. Beste guztiak ikastolan jarraitzen dute, normaltasunez.

2.1.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?

Osasun zerbitzuen erabakia da, ez ikastolarena.

Osasun zerbitzuek emango diote familiari konfinamendua egiteko derrigortasunaren berri. Komeni da familia ikastolarekin harremanetan jartzea (tutorearen bitartez), bere seme-alabak streaming saioak jarraitzea nahi duen ala ez (osasun egoeraren baitan) adierazteko besteak beste.

Ikastetxe bezala, egokitu zaigun OSiak (Osakidetzako langilea) deituko digu kontaktu estuztat har daitezkeen ikasle gehiago baditugun adierazteko, eta horrela baldin bada, dagokien familiekin jarriko gara harremanetan.

2.2. BIGARREN AGERTOKIA- GELA OSOA ETXEAN

2.2.1. Zer da?

Gela batean positibo bat edo gehiago suertatuz gero, eta OSlak hala erabakitzen badu, gela osoak irakaskuntza telematikoa jasoko du, baina ikastolako beste gelak irakaskuntza presentzialarekin jarraituko dute. Itxialdia 10 egunekoa izango litzatekeela uste dugu.

2.2.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?

Osakidetzaren erabakia da. Osakidetzatik harremanetan jarriko lirateke ikastolarekin eta guk horren berri izan bezain laister, gelako familiei abisua pasako genieke banan banan telefonoz deituz.

2.3. HIRUGARREN AGERTOKIA- IKASTOLA/ETAPA OSOA ETXEAN

2.3.1. Zer da?

Ikastola osoa, edo gutxienez etapa oso bat etxeratuta dago eta irakaskuntza guztia telematikoa da. Ez dakigu zein izango litzatekeen iraupena, baina badaezpada itxialdi luzeago baterako prestatuko ginateke.

2.3.2. Nork erabakitzen du? Nola informatuko dugu?

Ez dakigu Jaurlaritzaren, Hezkuntza Sailaren edo Osakidetzaren erabakia izango litzatekeen. Ikastolak ez-ohiko eta presazko albiste boletina argitaratuko luke honen berri emanez.

3. HAUR HEZKUNTZA

3.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia

3.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango du harreman zuzena.

3.1.2. 2.agertokia (taldea)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango da harremana (e-postaz, telefonoz, alexia bidez,meet bidez...).

Idazkaritzako ordutegia ere ohikoa izango da.

3.1.3. 3.agertokia (ikastola osoa)

Aldaketa sakonena ekarriko lukeen egoera izanik, komunikazioa aregotuko litzateke eta zirkularrak maizago bidaliko lirateke (e-postaz, Alexiaz, guraso ordezkarien taldeen whatsapp-en bitartez, meet bidez...), beti ere Hezkuntza Saitetik iristen zaizkigun aginduen eta berrien arabera.

Ez dakigu idazkaritza irekita egongo den bertara etortzeko, baina telefonoz bai artatuko dugula, betiko ordutegian.

3.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz

3.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Ikasle bat etxean konfinatuta geratzen den momentuan irakaslea harremanduko da familiarekin, telefonoz edo korreoaz.

3.2.2. 2. agertokia (taldea)

Talde osoa etxeratzen den momentuan meet bidez egingo dira konexio telematikoak.

Goizero saio irekia egongo da konektatu nahi duten ikasleentzat. Bertan irakasleak jarduera ezberdin bat egingo du egunero zuzenean. Saio hori 11:00etan egingo da.

Astean zehar, meet pertsonalizatua eskainiko da, familiak ondoen etortzen zaion ordutegia aukeratuko du horretarako.

Educa Reality plataforma digitala eskura izango dute modu autonomoan bertako proposamen, jarduerak,... ikusteko.

Beraien irakaslea positibo balitz, mailako beste tutorea jarriko da beraiekin harremanetan eta Educa Realityn dauzkaten proposamenak izango dituzte eskura.

3.2.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Ikastola osoa etxeratuko bagina ikasleekin meet-en bidez konektatuko ginatke, beti ere familiak nahi badu (gure etapa ez da derrigorrezkoa). Horretarako astean meet pertsonalizatua eskainiko genuke familiak aukeratzeko beraiei ondoen etortzen zaien ordutegian.

Goizero, mailaka, saio irekia egongo da konektatu nahi duten ikasleentzat. Bertan irakasleak jarduera ezberdin bat egingo du egunero zuzenean.

- HH2: 10:30
- HH3: 11:00
- HH4: 11:30
- HH5: 12:00

Astean zehar, meet pertsonalizatua eskainiko da, familiak ondoen etortzen zaion ordutegia aukeratuko du horretarako.

Euskara errefortzuak behar dituzten ikasleek ere egunero saioa izango dute:

- HH3: 10:00etan 2 talde, 15 minutuz.
- HH3: 10:20ean 2 talde, 15 minutuz.

- HH4: 10:45ean 2 talde, 20 minutuz.
- HH5: 11:15ean 2 talde, 30 minutuz.

Educa Reality plataforma digitala izango dute ikasle bakoitzak autonomia osoz bertan sartu eta jarduera, erronka ezberdinak, gelan baleude bezala sentitzeko eta egiteko.

3.3. Metodologia (+ zalantzak argitzeko aukerak):

3.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Ikasle bat etxean konfinatuta geratzen den momentuan irakaslea harremanduko da familiarekin, telefonoz edo korreoaz.

3.3.2. 2. agertokia (taldea)

Talde osoa etxeratzen den momentuan meet pertsonalizatua egingo da ikasleekin astean behin.

Egunero jarduera bat aurkeztuko die irakasleak meet bidez saio ireki batean talde osoari.

Educa Reality plataforma digitala izango dute ikasleak modu autonomoan erabiltzeko, bertan proposamenak, erronkak,...izango dituzte.

3.3.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Konfinamenduaren aurrean meet bidez konektatuko ginake:

- Egunero irakasleak jarduera bat talde osoarekin.
- Meet pertsonalizatua ikasle bakoitzarekin eta familiarekin astean behin.
- Euskara errefortzuak behar dituzten ikasleekin egunero.

Educa Reality plataforma digitala izango lukete bertan dauden proposamenak ikusteko eta modu autonomo batean egunean zehar lasai ikusteko.

3.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak (sustapena ez)

3.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Ohiko ebaluazioa egingo da.

3.4.2. 2. agertokia (taldea)

Eguneroko saioetan behaketa egingo du irakasleak eta familiarekin duen harremanean ere ikaslearen informazioa partekatuko dute.

3.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Irakasleak familiaren laguntzaz haurraren informazioa lortuko du. Horretaz gain, eguneroko saio irekietan informazioa jasoko du irakasleak eta meet pertsonalizatuetan ere bai.

3.5. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)

3.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Irakaslea jarriko da harremanetan familiarekin.

3.5.2. 2.agertokia (taldea)

Astean behin meet pertsonalizatua egingo da familiarekin.

3.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Astean behin meet pertsonalizatua egingo da familiarekin.

4. LEHEN HEZKUNTZA

4.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia

4.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango du harreman zuzena eta baita irakasle espezialistekin ere (e-postaz, telefonoz, alexia bidez, meet bidez...).

Idazkaritzako ordutegia ere ohikoa izango da.

4.1.2. 2.agertokia (taldea)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango da harremana (e-postaz, telefonoz, alexia bidez,meet bidez...).

Idazkaritzako ordutegia ere ohikoa izango da.

4.1.3. 3.agertokia (ikastola osoa)

Aldaketa sakonena ekarriko lukeen egoera izanik, komunikazioa aregotuko litzateke eta zirkularrak maizago bidaliko lirateke (e-postaz, Alexiaz, guraso ordezkarien taldeen whatsapp-en bitartez, meet bidez...), beti ere Hezkuntza Saitetik iristen zaizkigun aginduen eta berrien arabera.

Ez dakigu idazkaritza irekita egongo den bertara etortzeko, baina telefonoz bai artatuko dugula, betiko ordutegian.

4.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz. Ordutegiak.

4.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)

a. LH1- LH2

Egunero konektatzeko aukera izango du meet aplikazioaren bitartez eta irakasleak, gurasoekin kontaktu zuzena izango du eguneroko lanak bideratzeko. Ikasleak, egun bakoitzean konexio bat baino gehiago egin ditzake klasean egingo diren dinamiken arabera eta horrela, lanak gelakoekin edo bakarka etxean tartekatuko ditu. Lanak skoobi plataformaren bitartez (etxean baliabide teknologikoak eta inprimatzeko aukera baduzue) edo paperean, gelakideren baten bidez, jasotzeko aukera izango duzue.

b. LH3tik LH6ra

Egunero konektatzeko aukera izango du meet aplikazioaren bitartez eta irakasleak, gurasoekin kontaktu zuzena izango du eguneroko lanak bideratzeko. Ikasleak, egun bakoitzean konexio bat baino gehiago egin ditzake klasean egingo diren dinamiken arabera eta horrela, lanak gelakoekin edo bakarka etxean tartekatuko ditu. Ikasleak partekatua duen classroomean, Meet saioaren esteka aurkituko du. Classroom plataforma digitalean izango ditu zintzilikatuta egin beharreko lanak.

4.2.2. 2. agertokia (taldea)

c. LH1- LH2

Tutorearen presentzia bermatuko da egunero. Tutorea positiboa bada, modu asinkronikoan egingo dute bakarkako lana eta classroom/ educarealityn zintzilikatutako lanen bidez.

09:00-10:00 (orientatiboa)	Egunaren hasiera (tutorea) Eguneko lanen azalpena
10:00-12:00	Bakarkako lana Talde txikiak (tutorearekin) Tutoretza indibidualizatuak
12:00 -12:30	Egunaren amaiera (tutorea)

d. LH3-LH4-LH5-LH6

Ohiko ordutegia jarraituko da (09:00-12:30/ 14:30-16:30) beste geletako koordinazioa eta saioekin uztartzeko. Tutoreak ematen ez dituen ikasgaiak presentzialeko ordutegi berdina izango dute. Tutorea positiboa den kasuetan, ordezkoa egongo da.

- **LH3-4:**

09:00tan	Egunaren hasiera eta eguneko azalpena tutorearekin
	Tutorearekin gutxienez saio 1 sinkronikoan Modu asinkronikoan bakarkako lana
Presentzialean duten ordu berdinean	Espezialisten saioak: ingelesa, gazte, musika eta plastika

- **LH5-6**

09:00tan	Egunaren hasiera eta eguneko azalpena tutorearekin
	Tutorearekin gutxienez 2 saio sinkronikoan Modu asinkronikoan bakarkako lana
Presentzialean duten ordu berdinean	Espezialisten saioak: ingelesa, gazte, musika eta plastika.

4.2.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Egunero izango dute konexio telematikoa tutorearekin/irakaslearekin baina zikloaren arabera ezberdina izango da:

a) LH1-LH2.

- ✓ Egunaren hasieran konexio bat. 9.00-10.00 (meet bidez) Egunean zehar egin behar dena azalduz. Modu asinkronikoan lan egiteko Classroom-educreality erabiliko da.
- ✓ Goizean zehar irakasleak zailtasunak dituztenekin deiak, bideo-deiak egin.
- ✓ Talde txikietan bideo-deiak, talde lanak, euskera errefortzuak, familiekin bideo deiak...eskainiko dira.
- ✓ Egunaren bukaeran gelako bideo deia egingo da.

Hauxe izango da gelarekin eta irakaslearekin konektatzeko ordutegia.

09:00-10:00 (orientatiboa)	Egunaren hasiera (tutorea) Eguneko lanen azalpena
10:00-12:00	Bakarkako lana Talde txikiak (tutorearekin) Tutoretza indibidualizatuak
12:00 -12:30	Egunaren amaiera (tutorea)

b) LH3-LH4.

- ✓ Goizez egunero irakaslearekin 2 saio (aurrez ordutegi bat egingo da) egingo dira. Ondoren modu asinkronikoan lan egiteko proposamenak luzatuko zaizkie. Classroom bidez izango da.
- ✓ Gainontzeko saioak talde txikitik, euskara errefortzuak, familiar deiak... egingo dira.

Ordutegia	Egingo dena
09:00-09:10	Egunaren hasiera (tutorea)
09:10-10:00	1.saioa
15 minutu	atsedena
10:15- 11:00	2. saioa
15 minutu	atsedena
11:15-12:00	Bakarko lana Talde txikiak-tutorearekin Errefortzuak Tutoretza indibidualizatuak
12:00- 12:30	Egunaren amaiera (tutorea)

c) LH5-LH6.

- ✓ Goizeko ordutegia mantenduko da.
- ✓ Modu sinkronikoan 3 saio izango dituzte, atsedenaldirik tartekatuz.
- ✓ Modu asinkronikoan egiteko lanak ere izango dituzte.

Ordutegia	Egingo dena
09:00-09:10	Egunaren hasiera (tutorea)

09:10-10:00	1.saioa
15 minutu	atsedena
10:15- 11:00	2. saioa
15 minutu	atsedena
11:15-12:00	3.saioa
12:00- 12:30	Egunaren amaiera (tutorea) Talde txikiak-tutoreakin Bakarkako lana Errefortzuak Tutoretza indibidualizatuak

4.3. Metodologia (+ zalantzak argitzeko aukerak):

4.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Konfinamendu motza izanik, erritmo eta metodologia antzekoak jarraituko dira. Zalantzak argitzeko aukera izango du.

4.3.2. 2. agertokia (taldea)

Talde osoa etxean egonik, irakaskuntza telematikoa berezkoak diren ezaugarriak kontutan hartuko dira. Irakaslearen azalpenek motzagoak izan behar dute, talde lana bultzatuko da Meet-en bitartez eta Classroom (LH3-6)/ Educareality (LH1-2) erabiliko dira dokumentuak landu eta partekatzeke.

Modu asinkronikoan lan egiteko tartek ere emango zaizkie eta laguntza behar duten ikasleei banakako tutoretza, talde txikitik jarraipena... ere egingo zaie. Itxialdi motza izango litzatekenez, ikastolara itzultzean egokituko dira on line irakaskuntzan egin ezin izan diren jarduerak, baleude.

4.3.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Irakaskuntza telematikoa ez da irakaskuntza presentziala telematikoki erreproduzitzea. Berezko ezaugarriak eta mugak ditu eta udaberriko esperientzian ikasitakoa gure irakaskuntza telematikoa hobetzeko erabiliko dugu.

Ordutegian, saioen kopurua, iraupena eta saioen arteko atsedena egokituko dira. Saio telematikoa astunagoak eta arreta mantentzeko zailagoak dira. Saioen artean 15 minutuko atsedendia egongo dira. Saioetan azalpen orokorrak (presentziala

denean baino motzagoak) eta pertsonalizatuak (ikaslearen zalantzak eta kezkek argitzeko) tartekatuko ditugu.

Bakarkako lanek eta lan autonomoek garrantzia izango dute baina saiatuko gara talde lanek eta proiektuek pisua izan dezaten. Oso garrantzitsua da ikasleak beraien artean harremantzea itxialdi egoera batean, bai ikaskuntza prozesurako eta bai ongizate emozionalaren ikuspegitik. Horregatik, Meeten bitartez konektatuz, talde txikitik biltzeko eta lan egiteko aukerak bultzatuko ditugu.

4.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak (sustapena ez)

4.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Ebaluazio irizpideak eta tresnak ohikoak izango dira. Epeak egokituko dira. Klasekideek dituzten bezain beste aukera izango ditu. Ikasleari ebaluatu egingo zaio. Online egindako lanen bidez eta froga espezifikoko bat egin beharko balu, beste epe batean egingo luke gelara itzultzean.

4.4.2. 2. agertokia (taldea)

Ikasleari ebaluatu egingo zaio. Online egindako lanen bidez eta froga espezifikoko bat egin beharko balu, beste epe batean egingo lukete, gelara itzultzean.

4.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

10 egunetik gorako konfinamendua bada, edukiak eta ebaluazio irizpideak egokituko ditugu. Bidaliko diren jarduerak, lanak, erronkak...bere ebaluazio modu propioa izango dute eta beraz, online bada ere, maila bakoitzeko irakasleek ebaluazio hori nola egin zehaztua izango dute. Ebaluazioa jarraia eta hezigarria izango da.

4.5. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)

4.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Gelako ordutegi berean.

4.5.2. 2. agertokia (taldea)

Gelarekin egingo den eguneroko bideodeian txertatuko dira tutoretzak, tutoreak edota ikasleak behar duten aldiro.

4.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Gelarekin egingo den eguneroko bideodeian txertatuko dira tutoretzak, tutoreak edota ikasleak behar duten aldiro.

5. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

5.1. Familia eta ikasleekin komunikazioa harremana eta ikastolako ordutegia

5.1.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango da harremana (e-postaz, telefonoz,...).

Idazkaritzako ordutegia ere ohikoa izango da.

5.1.2. 2.agertokia (taldea)

Familia eta ikastolaren arteko komunikazioa ohiko kanalen bitartez izango da, hau da, tutorearekin izango da harremana (e-postaz, telefonoz, alexia bidez,...).

Idazkaritzako ordutegia ere ohikoa izango da.

5.1.3. 3.agertokia (ikastola/etapa osoa)

Aldaketa sakonena ekarriko lukeen egoera izanik, komunikazioa aregotuko litzateke (e-postaz, Alexiaz, guraso ordezkarien taldeen whatsapp-en bitartez,...), beti ere Hezkuntza Saitetik iristen zaizkigun aginduen eta berrien arabera.

Ez dakigu idazkaritza irekita egongo den presentzialki atenditzeko, baina telefonoz bai artatuko dugula, betiko ordutegian.

5.2. Ikasleekin konexio telematikoa egiteko moduak eta uneak: nola eta noiz

5.2.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Egunero saio guztietan bere gelarekin konektatzeko aukera izango du Meet aplikazioaren bitartez. Familiak web orrian dagoen eskaera-galdetegia bete behar du, eta, eskaera eginez gero, ikasleari konektatzeko konpromezua eskatzen zaio. Ikasleak partekatua duen calendarrean Meet saioen loturak aurkituko ditu. Classroom plataforma digitalean edota Alexian izango ditu zintzilikatuta egin beharreko lanak. Ikasleak kamara piztuta eduki behar du.

5.2.2. 2. agertokia (taldea)

Egunero saio guztietan konektatuko dira, ohiko ordutegia jarraituz eta Meet aplikazioaren bitartez. Ikasleek partekatua duten calendarrean Meet saioen loturak aurkituko dituzte. Classroom plataforma digitalean eta Alexian izango dituzte zintzilikatuta egin beharreko lanak. Ikasleek kamara piztuta eduki behar dute.

Asistentziaren kontrola eramango da.

5.2.3. 3. agertokia (ikastola/etapa osoa)

Klase sinkronikoak 8:30tatik 13:00tara izango litzukete, hau da, egunero 8:30tan konektatu eta 13:00ak arte. Meet saioen loturak calendarren izango litzukete. Classroom plataforma digitalean eta Alexian izango dituzte zintzilikatuta egin

beharreko lanak. Ikasleek kamara piztuta eduki behar dute. Asistentziaren kontrola eramango da.

5.3. Metodologia:

5.3.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Konfinamendu motza izanik, bere taldeak daraman erritmo eta metodologia bera jarraituko du, hau da, gelan gertatzen dena zuzenean jarraituko du saio guztietan: irakaslearen azapenak, talde lanak,... Zalantzak argitzeko aukera saioan bertan izango du.

5.3.2. 2. agertokia (taldea)

Talde osoa etxean egonik, irakaskuntza telematikoak berezkoak diren ezaugarriak kontutan hartuko dira. Irakaslearen azalpenek motzagoak izan behar dute, talde lana bultzatuko da Meet-en bitartez, Classroom eta Alexia erabiliko dira dokumentuak landu eta partekatzeko,... Ikastolan geratu diren maila bereko beste gelen erritmoa egokitu eta bateratuko da gelen arteko desoreka ez gertatzeko. Itxialdi motza izango litzatekeenez, ikastolara itzultzean errekueratuko lirateke on line irakaskuntzara egokitu ezin izan diren jarduerak, baleude.

5.3.3. 3. agertokia (ikastola/etapa osoa)

Irakaskuntza telematikoak ez da irakaskuntza presentziala telematikoki erreproduzitzea. Berezko ezaugarriak eta mugak ditu eta udaberriko esperientzian ikasitakoa gure irakaskuntza telematikoak hobetzeko erabiliko dugu.

Ordutegiak, saioen iraupena, saioen arteko atsedenak eta jolasorduak egokitu ditugu. Saio telematikoak astunagoak eta arreta mantentzeko zailagoak dira eta horregatik 45 minutukoak izango dira. Goizeko 8:30tan hasi eta 13:00ak arte, saioen artean 5 minutuko tarteak utziz aukeratik altxatu eta gorputza mugitzeko. Bi jolasordu ere izango dituzte (Ikus ordutegien atala).

Saioetan azalpen orokorrak (presentziala denean baino motzagoak) eta pertsonalizatuak (ikaslearen zalantzak eta kezak argitzeko) tartekatuko ditugu.

Bakarkako lanek eta lan autonomoek garrantzia izango dute baina bereziki talde lanek eta proiektuek izango dute pisua. Oso garrantzitsua da ikasleak beraien artean harremantzea itxialdi egoera batean, bai ikaskuntza prozesurako eta bai ongizate emozionalaren ikuspegitik. Horregatik, Meeten bitartez konektatuz, talde txikitan biltzeko eta lan egiteko aukerak bultzatuko ditugu.

Edukiak eta helburuak ere egokituko dira.

5.4. Ebaluazioa: prozedurak eta irizpideak

5.4.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Ebaluazio irizpideak eta tresnak ohikoak izango dira.

Bere taldeak azterketak egiten baditu bera etxeratuta dagoen bitartean, itzultzean egingo ditu. Klasekideek dituzten bezain beste aukera izango ditu eta ikaslearekin adostuko dira datak (itzuli eta 2-3 egunetara normalean).

5.4.2. 2. agertokia (taldea)

Ebaluazio irizpideak eta tresnak ohikoak izango dira.

Azterketa egiteko eskubidea ez dute galduko. Epeak moldatuko dira. Etxeratze agindua ebaluazio astean gertatuko balitz, gela horren ebaluazio astea eta boletina atzeratuko lirateke.

5.4.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

10 egunetik gorako konfinamendua bada, edukiak eta ebaluazio irizpideak eta kalifikazio tresnak egokituko ditugu.

5.5. Ikasleen ordutegia

5.5.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Klase presentzialetako ordutegi berbera izango dute.

5.5.2. 2. agertokia (taldea)

Klase presentzialetako ordutegi berbera izango dute.

5.5.3. 3. agertokia (ikastola osoa)

Ordutegia egokituko da.

Hauxe izango da gelarekin eta irakaslearekin konektatzeko ordutegia.

8:30-9:15	1.saioa
	5' atsedena
9:20-10:05	2.saioa
10:05-10:25	20' atsedena luzea
10:25-11:10	3.saioa
	5' atsedena
11:15-12:00	4.saioa

12:00-12:15	15' atsedeen luzea
12:15-13:00	5.saioa

Honetaz gain ikasleek denbora dedikatu beharko dute egunero bakarkako lanak egiteko.

5.6. Tutoretza (taldeko eta banakako tutoretza)

5.6.1. 2. agertokia (ikasle bat)

Taldeko tutoretza: Ostegunean 3. orduan.

5.6.2. 2.agertokia (taldea)

Taldeko zuztoretza: Ostegunean 3. orduan

Bidelagun: aurreko konfinamenduan zailtasunak izan zituzten zenbait ikaslek, tutoreaz gain, bere tutorea ez den irakasle bat izango dute izendatuta (“bidelagun irakaslea”). Irakasle honek ikaslearen jarraipen pertsonalizatua eramango du, etxeratzeak dakartzan arazoei aurre egiten laguntzeko. “Bidelagun irakasleak” harreman zuzena izango du familiarekin itxialdiak irauten duen bitartean

5.6.3. 3. agertokia (ikastola/etapa osoa)

Taldeko eta bakarkako tutoretza: asteke lehenengo saioa izango da, asteari begira kokatzeko.

Bidelagun: aurreko konfinamenduan zailtasunak izan zituzten zenbait ikaslek, tutoreaz gain, bere tutorea ez den irakasle bat izango dute izendatuta (“bidelagun irakaslea”). Irakasle honek ikaslearen jarraipen pertsonalizatua eramango du, etxeratzeak dakartzan arazoei aurre egiten laguntzeko. “Bidelagun irakasleak” harreman zuzena izango du familiarekin itxialdiak irauten duen bitartean.